

Ezpalak

JON TORNER


Badok.info: euskal kantagintzaren webgunea

BERRIA egunkariak bultzatu duen Badok.info webgunea euskal kantagintzaren datutegia izateko asmoz jaio da. Euskal musikagintzak 60ko hamarkadatik mende hasierara arte emandako fruituak irakurri, ikusi eta entzun ahal izango ditugu bertan. Biografiak, diskoak, DVD eta liburuei buruzko informazioa, diskotako hitzak jatorrizko diseinuarekin, ehunka argazki, abestiak entzungai, diskoetxeen biografia laburrak, bideoak... kontsultarako material ugari bilduko dute webgunean.



Tropela.net-ek Buber Saria irabazi du, euskararen sustapen atalean

TROPELA elkartearen txirindularitzari buruzko guneak (www.tropela.net) irabazi du euskara sustatzeko webgunerik onenaren Buber Saria. Euskal blog eta webgunerik onenak nabarmentzea xede duen sariketako gainerako irabazleak hauexek izan dira, atalez atal:



Herritarrentzako zerbitzua: Turismodebagoiena.com.

Erabilgarritasuna: Trouurist.com.

Software librearen sustapena: Diariolinux.com.


Merkataritza elektronikoa: Fitnessdigital.com.

Blog korporatiboa: Linkingpaths.com.

Blog/webgune pertsonala: Mimesacojea.com.

Hain justu, José A. Pérez *Mimesacojea* blogaren egileak uko egin zion saria jasotzeari: "Uko egin diot sariari, Buber Sariak propaganda erreminta nabarmenegiak iruditzen zaizkidalako. Gure politikoak eta txiringitoen arduradunak herrialdeetako titularretan *Internet* hitz distiratsuren alboan agertzeko erreminta bat dira Buber Sariak". Buber Saria Internet & Euskadi elkarteak banatzen ditu.

Manex Pagola idazle eta abeslariak (Landibarre, Nafarroa Beherea, 1941) jaso du Eusko Ikaskuntzak eta Baionako Herriko Etxeak urtero ematen duen Ohorezko Saria. Euskal Kultur Saria *Erritotik irrira: maskarada zuberotarraren diskurtsoa* idatzi duen Eric Dicharryrentzat izan da. Bideo dokumentalaren saria, berriz, Christophe Coutanceauk eskuratu du *Le BIO on en fait tout un fromage* lanagatik.



Semion Shmelkov

errusiarrak irabazi du Arrasate Hiria Nazioarteko XVII. Akordeoi Lehiaketako sari nagusia. Bigarren saria ex aequo jaso dute Vladimir Boyarski errusiarrak eta Marko Sevarlic serbiarrak; eta hirugarrena Maciej Frackiewicz poloniarrek. Arrasateko jaialdiaren barruan egindako Gipuzkoako XXX. Akordeoi Lehiaketan, bestalde, Juan Matias kantabriarra (haurren mailan), Roser Gabriel kataluniarra (juniorretan) eta Mari Carmen Ramirez murtziarra (seniorretan) nagusitu dira. Espainiako Estatuko 30 soinujolek parte hartu dute lehiaketan.

Joseba Irazokik *Euria ari du* diskoa plazaratu du Moonpalace Recordsekin. Diskoetxearen webgunean (www.moonpalacerecords.com) doan eskura daiteke. Pettik eta Barrence Whitfieldek ere disko berria kaleratu dute elkarlanean, Bloody Hotsak zigiluarekin.

● **Ander Oleaga Benguria bertsolariak Garan, Google bilatzailearen arrakastaz:** «Kalterik kezkarriena: bideoak irratiko izarra hil zuen bezalatsu, Google madarikatuak bazkalosteak hil ditu. (...) Horretan genbiltzan gu ere, Samantha Fox-en kanta ezagun hura inork melodia batera ezin ekarrita, batek azken generazioko sakelako telefonoa atera eta denok entzuteko moduko bolumenean jarri zuen arte. Ordu laurden bat beranduago, auskalo zergatik, Juanito Oizatzabal genuen hizpide: izar mediatico bihurtu aurretik harakina edo arrainduna izan ote zen. Sakelakoak itxi zigun, berriro, ikamikarako zein apusturako bidea».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php